

EUSKOTRENEK DONOSTIAN INAUTERIETAN ZEHAR AUTOBUSEN ZERBITZUA ALDATUKO DU

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotrenek, otsailaren 22an (larunbata) eta 23an (igandea) UK09, UK10 eta UK11 Zumaia-Donostia Lurraldebuseko autobus zerbitzua aldatuko du, INAUTERIAK direla eta.

Aipatutako egunetan 15:30ak eta 21:30ak bitartean, Donostian sarrerako eta irteerako ibilbideak aldatu egingo dira, eta zenbait geraleku kendu egingo dira. Donostiara sartzeko, San Martineko ohiko geralekua Easo kalera iritsi aurretik burutuko da. Kontrako noranzkoan, Donostiako irteeretan, Askatasun Etorbidea bertan behera geratuko da.

Informazio gehiago lortu nahi duten erabiltzaileek eskura dute Euskotrenen telefonoa: 944 333 333. Webgunean ere informazioa lor dezakete (www.euskotren.eus), baita Twitterren ere (@euskotrenEJGV).

Igorpen data: osteguna, 2020ko otsailaren 20a